



**EBAZPENA**, 2019ko maiatzaren 30ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan, oposizio-aldiko probak egiteko lekuak eta datak eta epaimahaien eta batzorde barematzaileen egoitzak argitara ematen dituen (hautaketa-prozedurak Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren)

---

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren (EHAA, 2019ko martxoaren 7a) bidez hautaketa-prozeduretarako deialdia egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko.

Aipatutako Aginduaren 7. atalak ezartzen du parte-hartzaileek oposizio-aldian egin beharreko probak.

7.3.2 atalak ezartzen du oposizio-aldia 2019ko ekainetik aurrera hasiko dela, eta maiatzaren bigarren hamabostaldian Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez zehaztuko direla epaimahaien egoitzak, bai eta oposizio-aldia egiteko lekuak eta datak ere.

Halaber, batzorde barematzaileen egoitzak ezartzen dira.

Horren arabera,

EBATZI DUT

## **1.- Oposizio-aldiko probak egiteko lekuak eta datak**

### **1.1.- Gai bat idatziz garatu (Lehenengo probaren B zatia): sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako parte-hartzaileentzat**

2019ko ekainaren 16an egingo da Barakaldoko (Bizkaia) Bilbao Exhibition Centreren (BEC), 09:30ean.

### **1.2.- Proba praktikoa: sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako parte-hartzaileentzat (Lehenengo probaren A zatia) eta azpitalde eta destino-osagarriaren maila bereko irakasleen beste kidego batzuetara iristeko prozedurarako parte-hartzaileentzat**

#### **1.2.1.- Maisu-maistren eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa.**

2019ko ekainaren 16an egingo da Barakaldoko (Bizkaia) Bilbao Exhibition Centreren (BEC), 13:00etan.



### 1.2.2.- Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa.

2019ko ekainaren 16aren ondoren egingo da. Epaimahaiak argitaratuko du bere iragarki-taulan ([www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus)) eta bere egoitzaren iragarki-taulan honako hau: izangaiek proba egiteko deituak izango diren eguna, ordua eta lekua.

Proba praktikoari buruz edozein argibide beharrezkoa balitz, dagokion epaimahaiaren iragarki-taulan adieraziko da.

### 1.3.- Ahozko proba: sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako (Bigarren proba)

Lehen proba gainditu dituzten sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman ondoren, hasiera emango zaio aipatutako txanden bigarren probari (lehen proba gainditu duten izangaiekin).

Ahozko proba epaimahaien egoitzetan egingo da.

1.4.- Epaimahaiak argitaratuko dituzte ahozko probarako izangaien zitazioak eta Bilbao Exhibition Centre (BEC)-en egingo ez diren proba praktikoetarako zitazioak, bai eta egokitzat jotzen dituzten beste gai batzuk ere, ondorengo tokietan:

- epaimahaien egoitzen Iragarki-taulak.
- dagokion epaimahaiaren "Iragarki-taula"-n (informazio-ondorioetarako). Taula hori kontsultatu daiteke:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz):  
«EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) - «Epaimahaiak» – izangaiari dagokion epaimahaiaren zenbakia adierazi – «Iragarki-taula».

Behin epaimahaien aurrean banakako jarduketak hasita, izangaiantzako hurrengo deialdiak ere probak egingo diren ikastetxeetan iragarri beharko dira, hasi baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez. Era berean, informazio moduan, Interneteko aipaturiko helbidearen bidez iragarriko dira, <http://www.irakasle.eus>.



## 2.- Epaimahaien egoitzak

### 2.1. Maisu-maistren kidegoa

ESPEZIALITATEA	EPAIMAHAIEN EGOITZAK	IKASTETXEAREN HELBIDEA	LURRALDE HISTORIKOA
Haur Hezkuntza	CIFP POLITECNICO EASO LHII	AITZOL PARKEA, 2. 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Lehen Hezkuntza	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Ingelesa	IES USANDIZAGA PEÑAFLOIDA AMARA BHI <b>EDIFICIO USANDIZAGA</b>	AITZOL PARKEA, 1A. 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Música	IES MARTIN DE BERTENDONA BHI	BERTENDONA, 5 48008 BILBAO	BIZKAIA
Gorputz Hezkuntza	IES USANDIZAGA PEÑAFLOIDA AMARA BHI <b>EDIFICIO USANDIZAGA</b>	AITZOL PARKEA, 1A. 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Hezkuntza Berezia. Pedagogia Terapeutikoa	IES MARTIN DE BERTENDONA BHI	BERTENDONA, 5 48008 BILBAO	BIZKAIA
Hezkuntza Berezia. Entzumena eta Hizkuntza	IES MARTIN DE BERTENDONA BHI	BERTENDONA, 5 48008 BILBAO	BIZKAIA

### 2.2. Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa

ESPEZIALITATEA	EPAIMAHAIEN EGOITZAK	IKASTETXEAREN HELBIDEA	LURRALDE HISTORIKOA
Guztiak	CONSERVATORIO DE MÚSICA JESUS GURIDI MUSIKA KONTSERBATORIOA	PLAZA DE LA CONSTITUCIÓN, 9, 01009 VITORIA-GASTEIZ	ARABA

### 2.3. Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa.

ESPEZIALITATEA	EPAIMAHAIEN EGOITZAK	IKASTETXEAREN HELBIDEA	LURRALDE HISTORIKOA
Guztiak	IES MENDEBALDEA BHI	DONOSTIA SAN SEBASTIAN KALEA, 3 01010 VITORIA-GASTEIZ	ARABA



### **3.- Batzorde barematzaileen egoitzak**

Epaimahaiantzat, Kidego bakoitzarentzat ezarritako egoitzak berberak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 30ean

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

JON AGIRRE HUERGA